

Enpresak ezin dio arreta eman merkatu osoari, bere eskaintza nori zuzenduko dion hautatu behar du. Horregatik, guztizko merkatua zatitu egin behar du antzeko ezaugarriak eta premiak dituzten talde uniforme txikiagoetan. Prozesu horri merkatuaren segmentazioa deritzo.

Gure kasuan, balorea, DBHko eta Batxilergo ikasleei zuzenduta dago, beraz, gure bezeroek zehazki, hainbat ezaugarri edukiko dituzte:

- Pertsona gazteak izango dira.
- Ikastetxe ezberdineko ikasleak izango dira.
- Laguntza akademiko zehatzak behar dituzten ikasleak.
- Kurtsoa ondo bukatzeko gogoia eta motibazioa duten ikasleak izango dira.